# IKASTETXE IRAUNKORRA, HERRI IRAUNKORREAN

ESKOLAKO AGENDA 2030

Tolosaldea 2020-2021 TRANTSIZIO URTEA 1. buletina

1. Pobreziarekin bukatu.
2. Gosearekin amaitu, elikadura hobetu eta nekazaritza jasangarria bultzatu.
3. Bizimodu osasungarria bermatu eta ongizatea sustatu.
4. Hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatu.
5. Genero-berdintasuna lortu.
6. Edateko ura bermatu.
7. Energia jasangarria bermatu.
8. Hazkunde ekonomiko jasangarria eta lan betea eta duina sustatu.
9. Azpiegitura erresilienteak eraiki, industrializazio jasangarria eta berrikuntza sustatu.
10. Desberdintasunak murriztu.
11. Hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortu.
12. Ekoizpen eta kontsumo jasangarriak bermatu.
13. Klima-larrialdiaren eta haren ondorioen aurka egin.
14. Itsasoak eta itsas baliabideak mantendu.
15. Lehorreko bizitza babestu eta biodibertsitatearen galera gelditu.
16. Gizarte baketsua eta inklusiboa sustatu eta guztioi justiziarako sarbidea erraztu.
17. Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.

Gobernuz Kanpoko Erankunde bati lagundu, janaren xahuketak aprobetxatu, ura aurreztu, energia berriztagarriak aukeratu, non eta zer kontsumitu pentsatu, ... nondik has gaitezke?

## "IKASTETXE IRAUNKORRA HERRI IRAUNKORREAN" LELOA

EA 21 proiektuari esker, eskolek udalerrien garapen jasangarrian parte hartu ahal izan dute. Garai berrietara egokitzeko, **Eskola Agenda 2030** estreinatzen dugu aurten, planeta babesten laguntzeko 17 helburuz osatutako ekintza-plana hain zuzen ere. Gainera, Euskal Herrian 17+1 helburua dugu: Hizkuntza eta kultura aniztasunaren bermea.

Iaz bukaera "arraroa" izan genuenez, iazko ekonomia zirkularraren gaiari helduta, aurten **Garapen Iraunkorreko Helburuetara** begira jarriko gara. Ikastetxe bakoitzaren erritmoa errespetatuz, gizakia eta ingurumenaren arteko errespetua eta oreka lortzeko egingo dugu lana.
Ikasturtea berezia izango da, trantsizio ikasturtea izateaz gain, COVID-19ak markatutako ikasturtea izango delako.

TOLOSAKO DON BOSCO (PAPER ESKOLA) PROIEKTUARI GEHITU ZAIO AURTEN. ADIN EZBERDINETAKO 7.500 IKASLE INGURUK, TOLOSALDEA IRAUNKORTASUNAREN BIDEAN JARTZEKO EGINGO DUGU LANA ELKARREKIN.
IRAKASLEAK ETA FAMILIAK BIDELAGUNAK IZANGO ZARETE!!!

# 2021

PROPOSAMEN IRAUNKORREZ BETETAKO URTEA

Urte berriarekin asmo berriak izaten ditugu. Aurten, asmo horiek ingurumenarekin zerikusia izatea proposatu nahi dizugu.

ELKARREKIN LAN EGINEZ, TXIKITIK, GAUZAK ALDA DITZAKEGU.

MILURTEKO HELBURUAK EZAGUTU ETA AZTERTU

KONTSUMO ARDURATSUA EGIN: MURRIZTU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATU

URAREN KONTSUMOA GUTXITU

KONPOSTA EGIN ETXEAN EDO UDAL-PLANAREN BIDEZ

11 HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK

IKASTETXEAK ETA UDALAK SUSTATZEN DITUEN EKIMENETAN PARTE HARTU

EZ ALFERRIK GALDU JANARIA., PLANIFIKATU EROSKETAK ETA MENUAK

ERABILI GAUZAK BALIO EZ DUTEN ARTE

HERRIKO DENDETAN EROSI. BERTAKO ETA TOKIKO PRODUKTUAK

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

EROSKETARA, ESKOLARA, LANERA... OINEZ, BIZIKLETAZ EDO GARRAIO PUBLIKOZ JOAN

TRUKEAK EGIN LAGUNEKIN, FAMILIAREKIN.... OSO DIBERTIGARRIA IZAN DAITEKE!

PLASTIKOA EZ ERABILI. BAI TELAZKO POLTSAK, KRISTALEZKO ONTZIAK, XABOI SOLIDOAK, KANTINPLORAK, ....

ALDAKETAK OHITURA BIHURTU

ESKOLAKO AGENDA 2030

IKASTETXE IRAUNKORRA, HERRI IRAUNKORREAN